

1168/2021 EBAZPENA, IRAILAREN 22KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ 2021EKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDAK ERATZEN DIREN ETA IZENA EMATEKO EPEA IREKITZEN DEN.

Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez, Osakidetza aldi baterako kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzea arautzen da (2021eko abuztuaren 10eko EHAA 158. zk.).

Erabaki honek Osakidetza langile ez-finkoak kontratatzeke zerrenden sistema arautuko duten irizpideak definitzen ditu, eta bere asmoa da Enplegu Publikoaren Eskaintzako hautaketa-prozesu bakoitzaren amaierari lotutako sistema bat ezartzea, zerrendak egiteko eta izendapenak kudeatzeko irizpideak jasoz; bada, zerrendak eta izendapenak hautaketa-prozesuko berdintasun-, merezimendu-, gaitasun-, eraginkortasun- eta arintasun-printzipioetan oinarrituko dira, bai eta objektibotasun- eta gardentasun-printzipioetan ere. Era berean, azken Enplegu Publikoaren Eskaintzako deialdian sartu ez ziren kategorietan izen-emate berriak gehitzeko sistema ezartzen da.

Erabakiaren hamabigarren xedapen gehigarrian ezartzen da, Erabakia indarrean jarri ondoren, bertako II. eranskinean jasotako aldi baterako kontratazioko zerrendak eratuko direla.

Kontratazio-zerrendak eratzean, 2021eko uztailaren 21eko Erabakian ezarritakoaren arabera, zerrenda hauen espezifikotasunak hartu beharko dira kontuan:

1. 2016-17ko EPEko deialdian sartutako kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendak, prozesu horretan azken fasean izapidetzen ari direnak.
2. 2016-17ko EPEko deialdian sartutako kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendak, kautelaz eten direnak, prozesuak ikerketa judizialean daudelako (urriaren 24ko 1333/2019 Ebazpena eta urtarrilaren 15eko 32/2020 Ebazpena, zuzendari nagusiarenak biak).
3. 2016-17ko EPEko deialdian sartu ez ziren kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendak.

Lehenengo kasuan:

- 2016-17ko EPEtik eratorritako kontratazio-zerrendak irekiko dira, eta zerrenda berriak egingo.

Bigarren eta hirugarren kasuetan:

- Uztailaren 21eko Erabakiaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu behar dira zerrendak, gaur egun indarrean dauden zerrendetako kideen eskubideak errespetatuta.
- Pertsona horiek bi aukera izango dituzte: beste destino batzuk aukeratzeko eskabide berria egin, ala egun indarrean dauden zerrendetarako egin zuten eskabideari eutsi.
- Destino-eskabide berririk aurkezten ez badute, aukeratuta zeuzkaten destinoak ofizioz egokituko dira, Osakidetza aldi baterako kontratazioko webgunean argitaratutako destinoen baliokidetasun-taulen arabera.
- Gainera, izen-emate berriak gehitu ahal izango dira, uztailaren 21eko Erabakian ezarritakoaren arabera, zerrendak beti irekita egongo direlako.

- Gaur egun indarrean dauden zerrendetako kideak eta izen-emate berriak zerrenda bakar batean ordenatuko dira, puntuazioaren arabera.

2016-17ko EPEko deialdian sartutako zenbait kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendak kautelaz etenda daude (urriaren 24ko 1333/2019 Ebazpena eta urtarrilaren 15eko 32/2020 Ebazpena, zuzendari nagusiarenak biak), eta EPEaren prozesuaren behin betiko ebazpenaren data jakin ezin denez, eta indarrean dagoen uztailaren 21eko Erabakia aplikatu behar denez, aipatutako Erabakiaren 12. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar dela uste da.

Osakidetzako zuzendari nagusiak du Ebazpen hau emateko eskumena, Osakidetzaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera eta uztailaren 21eko Erabakiaren azken xedapenetatik hirugarrenaren arabera. Izan ere, xedapen horrek ahalmena ematen dio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari Erabakia garatzeko behar diren ebazpenak edo instrukzioak emateko.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2021eko aldi baterako kontratazioko zerrendak eratzea, Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzea arautzen duen Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren II. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako (2021eko abuztuaren 10eko EHAA 158. zk.). Ondorioz:

Lehenengoa.– a) 2021eko aldi baterako kontratazioko zerrendak eratzea eta aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea irekitzea 2016-17ko EPEko deialdian sartutako kategorietan, azken fasean izapidetzen ari direnak, Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren II. kapituluan ("Zerrendak sortzea") ezarritakoaren arabera.

I. eranskina gehitu da, non 2016-17ko EPEko deialdian sartutako kategorien aldi baterako **kontratazioko zerrendak** jasotzen diren (zerrenda horien izapidetzea azken fasean dago).

Lehenengoa.– b) Izena emateko epea irekitzea, izen-emate berriak gehitzeko 2016-17ko EPEko deialdian sartu ez ziren kategoriei dagokienez indarrean dauden aldi baterako kontratazioko zerrendetan, bai eta 2016-17ko EPEko deialdian sartutako kategoriei dagozkien eta kautelaz etenda dauden indarreko aldi baterako kontratazioko zerrendetan ere (urriaren 24ko 1333/2019 Ebazpena eta urtarrilaren 15eko 32/2020 Ebazpena, zuzendari nagusiarenak biak).

II. eranskina gehitu da, non **Lehenengoa.**– b) apartatuan aipatzen diren kontratazio-zerrendak jasotzen diren.

Egun indarrean dauden zerrenda horietan izena emanda dauden eskubideak errespetatuko dira (Ebazpen honen II. eranskina), **indarrean dagoen araudira egokituta, eta eraketa-fase honetan:**

- a) Zerrenda zaharren izena 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren izendapenaren eta arauen arabera aldatuko da.

- b) Zerrendetako kide guztiek baldintzak betetzen dituzten aztertuko da. Kideren batek ez baditu betetzen egungo araudiaren arabera eginkizunak betetzeko eskatzen diren baldintzak, zerrendatik kanpo geratuko da.
- c) Ebazpen honen II. eranskinean jasotako zerrendetako kideek beste destino batzuk aukeratu ahalko dituzte zerrendak eratzeko epean, 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren arauetan oinarrituta, eta, bestela, aukeraketa ofizios egingo da, gaur egun indarrean dauden zerrendetan aukeratuta dituzten destinoak erreferentziatzen hartuta, zerrenden eta Osakidetzaren egitura berrira egokituta, Osakidetzako aldi baterako kontratazio webgunean argitaratutako destinoen baliokidetasun-taulen arabera.
- d) Zerrenda bakar batean ordenatuko dira, puntuazioaren arabera, dagoeneko zerrenda horietan dauden pertsonak, izen-emate berriekin batera, 2021eko uztailaren 21eko Erabakian ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.— Eskaera modu telematikoan egin beharko da, Osakidetzaren webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/ataria>) eskuragarri dagoen aldi baterako kontratazio zerrenden aplikazioaren bitartez, bide honetan: Enplegu publikoa / Aldi baterako kontratazioa / Kontratazio-zerrendak 2021.

Eskabidea egitean, betekizunen eta merezimenduen atalean erantsi beharko dira egiaztagiria, salbu eta dokumentazio hori Curriculum Vitae aplikazioan erregistratuta eta baliozkotuta badago.

Ezin badira agiri horiek elektronikoki baliozkotu, jatorrizko dokumentua edo dokumentu konpultsatua aurkezteko eskatuko die interesdunei kontratazioa kudeatzeko dagokion unitateak, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

Hirugarrena.— Eskabideak aurkezteko epea **2021eko irailaren 23ko 08:00etatik urriaren 25eko 14:00ak arte egongo da zabalik.**

Laugarrena.— Izena emateko epea irekitzean, arestian aipatutako webgunean jarraibideak argitaratuko dira, honako hauek zehazteko: Eranskinetan adierazitako kategoriei dagozkien aldi baterako kontratazio zerrendetan izena emateko behar diren alderdi guztiak, zerrenda horietan izena eman dezaketen pertsonak, zerrendetan onartuak izateko erantsi beharreko dokumentazioa eta izen-emateari buruzko beste alderdi batzuk.

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 22an

 **Osakidetza**
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL
Sin.: María Rosa Pérez Esquerdo
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Eraketako Ebazpena
I. ERANSKINA – 2016-17ko EPEko deialdian sartutako kategoriak

KATEGORIA
ALERGOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
ANATOMIA PATOLOGIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO APARATUKO FAK. ESP. MEDIKOA
AHOKO ETA AURPEGI MASAIETAKO KIRURGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
KIRURGIA PEDIATRIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
TORAXEKO KIRURGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
FAMILIA MEDIKUNTZAKO FAK. ESP. MEDIKOA – LMAT
DERMATOLOGIA MEDIKO KIRURGIKOKO ETA BENERELOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
EMERGENTZIETAKO FAK. ESP. MEDIKOA
ENDOKRINOLOGIAKO ETA NUTRIZIOKO FAK. ESP. MEDIKOA
GAIXOTASUN INFEKZIOSOEN ARLOKO FAK. ESP. MEDIKOA
HEMATOLOGIAKO Y HEMOTERAPIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
ETXEKO OSPITALIZAZIOKO FAK. ESP. MEDIKOA
LANEKO MEDIKUNTZAKO FAK. ESP. MEDIKOA
MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO FAK. ESP. MEDIKOA
BARNE MEDIKUNTZAKO FAK. ESP. MEDIKOA
MEDIKUNTZA NUKLEARREKO FAK. ESP. MEDIKOA
PREBENTZIO MEDIKUNTZAKO ETA OSASUN PUBLIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
NEFROLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
PNEUMOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
NEUROLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
OBSTETRIZIAKO ETA GINEKOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
OFTALMOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
ONKOLOGIA MEDIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
OTORRINOLARINGOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
PEDIATRIAKO FAK. ESP. MEDIKOA - LMAT
OSPITALE PEDIATRIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
PSIKIATRIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
HAUR PSIKIATRIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
ERRADIODIAGNOSTIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
ERREUMATOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
KSU-KO FAK. ESP. MEDIKOA
ANALISI KLINIKOKO FAK. ESP. MEDIKO-TEKNIKO
BIOKIMIKA KLINIKOKO FAK. ESP. MEDIKO-TEKNIKO
IMMUNOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKO-TEKNIKO
OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO FAK. ESP. MEDIKO-TEKNIKO
OSPITALE FARMAZIAKO FAK. ESP. TEKNIKO

PSIKOLOGIA KLINIKOKO FAK. ESP. TEKNIKO
BIOLOGIAKO FAK. TEKNIKO
FARMAZIAKO FAK. TEKNIKO
ODONTOLOGIAKO FAK. TEKNIKO
GOI MAILAKO INGENIARIA
INFORMATIKAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-LIBURUZAINA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-LETRADUA / GOI MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKOA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-EKONOMIAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-ANTOLAKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
GOI MAILAKO TITULUDUNA-PREBENTZIOKO, SEGURTASUNEO ETA HIGIENEO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
ERIZAINA
LAN OSASUNEO ERIZAINA
OSASUN MENTALEKO ERIZAINA
FISIOTERAPEUTA
EMAGINA
INGENIARI TEKNIKO
GIZARTE LANGILEA
ANATOMIA PATOLOGIKOKO ETA ZITOLOGIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
AUDIOPROTESIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
DIETETIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
DOKUMENTAZIO SANITARIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
ADMINISTRARIA
SUKALDARIA
INFORMATIKAKO TEKNIKARIA
ERIZAIN LAGUNTZAILEA
FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
MANTENTZE LANETAKO OFIZIALA
ZELADOREA
ZERBITZUETAKO LANGILEA

Eraketako Ebazpena

II. KATEGORIA - 2016-17KO EPEko deialdian sartu ez ziren kategoriak, eta 2016-17KO EPEko deialdian sartuta egon arren kautelaz etenda dauden kategoriak

ANESTESIOLOGIAKO ETA BIZKORKETAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
ANGIOLOGIAKO ETA KIRURGIA BASKULARREKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
DIGESTIO APARATUKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
KARDIOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
BIHOTZ HODIETAKO KIRURGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
KIRURGIA PLASTIKO, ESTETIKO ETA KONPONTZAILEKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
ZAINKETA ARINGARRIEN FAK. ESP. MEDIKOA
EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA
GERIATRIAKO FAK. ESP. MEDIKOA
MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
NEUROKIRURGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
NEUROFISIOLOGIA KLINIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
FAM. ETA KOM. MED. IRAKASKUNTZA UNITATEKO FAK. ESP. MEDIKOA
OSPITALE LARRIALDIETAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
UROLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
MIKROBIOLOGIAKO ETA PARASITOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKO-TEKNIKOA - (kautelaz etenda 2016/17KO EPE-AN)
IKERKUNTZA UNITATEKO FAK. ESP. MEDIKO-TEKNIKOA
ERGONOMIAKO ETA PSIKOSOSIOLOGIAKO PREBENTZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
LOGOPEDIAN DIPLOMADUNA
OPTIKAN ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA
FAMILIA ETA KOMUNITATE ERIZAINA
TERAPEUTA OKUPAZIONALA
PREBENTZIOKO, SEGURTASUNEN ETA HIGIENEN ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
AHO HORTZEN HIGIENEN GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA
ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIALA GIDARIA
GARRAIO SANITARIOAREN OFIZIALA GIDARIA
EMERGENTZIETAKO IBILGAILUEN OFIZIALA GIDARIA
JOSTUNDEGIKO OFIZIALA